

## **Funtsezko Baliabideak:**

Gure proiektuaren funtsezko baliabideak honakoak izango dira:

Lehenik eta behin, baliabide fisikoen aldetik, lan egin ahal izateko lokal pribatu bat izan behar dugu, bertan bilduko gara enpresarako kideek. Lokal horretan beharrezko materiala jarriko genuke aplikazioa egiteko eta gure enpresari aurrera eramateko, hala nola: ordenagailuak, eta bestelako bulegoko ekipamendua.

Baliabide intelektuaren aldetik, ideiareneko diseinua, enpresaren markaren copyright-a beharko ditugu, gure baliabide intelektualei babesa emateko gure ideiak lapurtu ez dezaten.

Giza baliabideei dagokionez, enpresako taldekide bakoitzak bere funtzioa izango du.

Amaitzeko, finantza baliabideen kasuan, inbertsoreak izan behar ditugu gure proiektua aurrera egiteko. Inbertsore horien eskaintzak asetuko ditugu eta entzunez aplikazioari forma emango diegu.

